

Despedida a Txillardegi, precursor del euskera batua

El mundo de la cultura y las instituciones vascas dieron ayer el último adiós a Alvarez Enparantza

■ JON AGIRRE

SAN SEBASTIÁN. Numerosas personalidades de la cultura como Xabier Mendiguren, Juan Mari Irigoien, Andres Urrutia y rostros de la política como Patxi Zabaleta, Tasio Erkizia, Ikerne Badiola o Zigor Etxebarria se acercaron ayer a la mañana a la capilla ardiente instalada en el tanatorio de Errekalde para dar un último adiós a Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, del que destacaron su labor a favor del euskera, tanto en lo que concierne a la lengua como en lo respectivo a la literatura.

«Fue uno de los creadores e impulsores de la cultura vasca», remarcó el exdirigente de la antigua Bata-suna Tasio Erkizia, quien añadió que con la muerte de Txillardegi se ha perdido «un buen hombre, un referente para las generaciones posteriores, y un gran pensador». Autor del libro 'Leturiaren egunkari

ezkuta', consideraba como primera novela moderna escrita en euskera, para el presidente de Euskaltzaindia Andres Urrutia fue «un referente, un guía» que abrió «nuevos caminos» con el «aire fresco» que le trajo al euskera.

En esa línea, Xabier Mendiguren quiso recordar todo el trabajo que hizo por el euskera batua en un momento duro, por lo que emplazó a aprovechar lo que se ha hecho hasta ahora como «base» y como «estímulo para seguir adelante». Al respecto del euskera batua, Urrutia quiso matizar que la aportación de Txillardegi al proceso de normalización de la lengua no se limitó solo «al plano teórico», sino que con su labor y forma de proceder demostró que el euskera se podía hablar «en cualquier lugar y situación».

Asimismo, compañeros de trabajo de Txillardegi en los primeros años de los 80 en UZEI, centro de terminología y lexicografía, incidieron en su «gran labor en favor de la cultura vasca moderna» y, sobre todo, en su «ayuda a la hora de adaptar y desarrollar diccionarios y lenguajes de áreas como la ciencia y la tecnología de cara a un uso



Urrutia, presidente de Euskaltzaindia, ayer en Errekalde. ■ UNANUE

universitario.

En cuanto a la labor de Álvarez Enparantza como precursor de la literatura vasca, el escritor Joan Mari Irigoien afirmó que «pocos han aportado a Euskal Herria tanto como Txillardegi, tanto cualitativa como cuantitativamente».

Por otro lado, Patxi Zabaleta qui-

so remarcar que la abundante obra de Txillardegi ha quedado ahí «para la historia y para que pueda servir de guía a futuras generaciones». En la misma línea, el Director general de Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Zigor Etxebarria declaró que «aunque hayamos perdido una luz importante, estamos dispuestos a se-

«Abrió nuevos caminos con el aire fresco que le trajo al euskera», declara Andres Urrutia

«Un adelantado a su tiempo, motor de cambio de la sociedad vasca», afirma Lohitzune Txarola

guir el camino emprendido por Txillardegi». Además, quiso destacar «el carácter íntegro y humilde» de Alvarez Enparantza, así como su importancia en el proceso de normalización del euskera, ya que fue «precursor y revolucionario». «Fue un adelantado a su tiempo, uno de los motores de cambio de la sociedad vasca», afirmó la presidenta de las Juntas Generales Lohitzune Txarola.

Despedida en la intimidad

Ayer, a primera hora de la tarde, el cuerpo de Txillardegi fue incinerado en la intimidad y, aunque no se le hará ningún funeral religioso, la semana que viene su familia celebrará un acto de despedida. Del mismo modo, la izquierda abertzale ha organizado un homenaje el próximo 29 de enero en el Kursaal donostiarra, según informaron en un comunicado en el que añaden que en breve se ofrecerán más detalles de «este evento nacional».

Por último, y según informó Berria ayer en su edición digital, el sábado por la tarde los familiares de Txillardegi cubrieron el cuerpo con la misma tela que cubrió el cuerpo de Txomin Iturbe en 1987. La tela la guardaba el escritor en su casa desde entonces.

Jose Luis Alvarez Enparantza, bere izen-deiturez baino 'Txillardegi' izengoitiaz ezagunagoa euskal gizartean, eta batez ere hizkuntza eta literaturaren eremuan gabiltzanontzat, joan zaigu gure arteak. Aspalditxoan isil antzean bage-nuen ere, gaurko belaunaldi gazteek ere ezaguna dute 'Txillardegiren' izena, zuzen edo zeharka haren hotz eta aipuen uhinak eurongana ere aise heldu direlako.

Euskara lantzen dutenek, filologietan, itzulpengintzan edo maila ertainetan, entzunak dituzte ziurtenik haren zenbait obra, batzuk aspaldikoak. Hala 'Larresoro' goitizenez argitaratu zuen 'Sustrai bila' (1970), euskal gramatikaren «zenbait euskal korapilo» askatu nahirik idatzia, hurren argitaraldian ugariagotuko zuena, 'Oinarri bila' (1977) izenburupean, «morfosintasian eta fonologian». Ezagunagoa dute, eta dugu agian, gerorago aterako zuen 'Euskal Gramatika' (1978) modu sistematikoa eta didaktikoagoan lantzen zuena.

Euskal fonetika-fonologia ikasketetan landu behar izan dutenek, eta areago horako gaiotan murgildu diren ikerlariek ezinbesteko erreferentzia izan dute, aintzindarietarik izan baita gai

ADOLFO AREJITA
EUSKALTZAIN OSOA

TXILLARDEGIEN HERIOTZEAN

Euskara «normahi» erabiltzekoa zela erakutsi zigun, zientzia eta pentsaera gaietan barrena murgiltzeko

horiezaz goi ikaskuntzarako ikas-liburu adituak prestatzen: 'Euskal Fonologia' (1980) eta 'Euskal azentuaz' (1984), aldizkari berezietan idatzi dituen ikerlanak aipatu beharrik gabe ere.

Euskara batuaren prozesua hasieratik ezagutu dugunok ondo dakigu 'Txillardegiren' ekarriak eta iritziak horretan ere izan duen pisua, bai iritzi artikuluen bidez, bai hiztaldien bidez, zer esanik ez eta batez ere bere sorkuntza literarioaren bidez. Euskararen batuaren aldeko lehian gazterik eta gazteak sartu zuen. Goizetikoa dugu nolabait 1974an atera zuen 'Euskara batua zertan den' saioa. Iparaldeko euskararen berezita-

sunak eredu batuaren barnean nahi zuten; ez zuten ametziten hegoaldeko hizkeretan oinarrituko zuten eredu bat, iparraldekoa ere ondo kontuan hartuko zuena baizik. Abertzale zintzo legez Euskal Herri bat, ipar eta hego, nahi zuten bezala, halaxe euskal hizkuntza batua ere. Mitxelena-ren arrastotik ez urrun, inola ere.

Bestela ere lagun zaharra eta hurbila zuten Mitxelena, hizkuntza gaietan ez ezik, literatura eta pentsamoldeetan ere, politikaz arin banatu baziren ere euren bi-deak. Kideetasun horren lekuko dugu 'Leturiaren egunkari ezkuta' (Bilbao 1957) narrazio-lan berri-tzaileari Mitxelenak egin zien

hitzaurre fina eta ongiatorrizkoa: «Eskerrak eman nahi nizkioke (...) eleberrri hau euskeraz eman digulako», zioen azkeneruntz, eta gogorarazten «egin beharra ez dela sarritan nolana betetzen, heroismo hutsa eskatzen digula». Urte ilun, antzu eta zail haietan heroismorik asko zen, izan ere, 'Txillardegi' bezalako gazte eskaldunberri batentzat holako erronka bati orratza. Neu ere gaztetxoan nintzen, Bilbon «Euskaltzaindiaren ardurapean» argitaratu zen liburu mehe hori eskuratu eta irakurri nuenean. Haize berria zen euskal literaturan. Existentialismoa ikasten gениharduen geure filosofiko ikasketetan, Sartre eta Camus zein ziren bagenekien, baina euskarazko literaturan Txillardegiren bidez sartu ginen itsaso horretan. Luze gabe etorriko ziren, ber aaldian hots egin zuten beste eleberrri bi: 'Peru Leartzako' (1960) eta 'Elsa Schelen' (1969), biak bere atzerrialdian onduak, baina orduko gure euskara-eskoletan, berariaz literatura lantzen genuen ikastarotetan, zabal irakurriak eta aztertuak zirenak. Etxeratu ondoren ere sekula ez du bazter utzi eleberrigintza, 'Haizeaz bestaldetik' (1979) obrarekin segida emanez. Saioa euskaraz lantzea izan

zuen 'Txillardegik' beste urrats goiztiar berrikuntzatariko bat. Baionan edizio apal batez urratu zuen bidea 1965ean, 'Huntaz eta hartaz' saio-bildumak. Salbatore Mitxelena ere (Unamuno eta abendats, 1958) arlo horretan jarduna zen, Koldo Mitxelena bezala eta gerorago Joxe Azurmendi (Hizkuntza, etnia eta marxismoa, 1969) izango genuen bezala. 'Txillardegik' bere praxiaz erakutsi zigun gazterik, euskara «nornahi-koa» zela, zientzia eta pentsaera gaietan barrena murgiltzeko.

Aldizkarietan barrena artikulu asko idatzita da, politika, filosofia, hizkuntza, literatura, historia zein osteango gaiez. Horien sortu hartuak egin eta gizarteratzeko ordua heldu ote den nago.

Labur epaituz, beldur barik esan daiteke beste batzuekin batera, gudu ondoko euskal gizartearen joan-etorrian pentsaera aldetik eraginik handienetarikoak izan duen idazle, politikoa eta pentsalaria izan dugula 'Txillardegi'. Gizon maitagarria eta maitatua, beraren iritzi zorrotzak batzuetan mingarri gertatu arren zenbait.

Esker on eta goraintzi, 'Txillardegik', euskarari, euskal literaturari eta euskal gizarteari eman diozun guztiagatik, hutsaren truke. Gogoa zaitgutu.